

SURPOSAREN JABETZAPEKO MERKATARITZA-ETXABE HUTSETAN JARDUERA SUSTATZEKO NEURRIAK

AURREKARIAK

“Surposa” Portugaleteko Berregokitzapenerako Hirigintza Sozietateak kalera jotzen duten merkataritza-lokal batzuk berriki birgaitu eta atondu egin ditu merkataritza-jarduerak eta zerbitzuetakoak garatze aldera.

Portugaleteko Udalaren Ekonomi Sustapen eta Enplegu Sailak abian jarri du Merkataritza-Ekintzaitzarako Proiektu Integral bat.

Proiektuak ekintzaileei erantzun integral eta pertsonalizatuak eskaini ez ezik ekintzaitzarako baldintzak errazten dituzten testuinguruak, programak eta proiektuak ere bideratu nahi ditu. Horretarako, sailen arteko eta erakundeen arteko elkarlana bultzatu nahi du.

Portugaleteko Udalak abian jarri du aipatutako zerbitzua udalerrian ekintzaitza bultzatzearen. Estrategietako bat da proiektu horien bideragarritasuna errazteko baldintzak sortzea, hala nola gazteen enplegua eta autoenplegua, lokal batzuk une honetan hutsik daudela kontuan hartuta.

Honenbestez, Surposak hiru lokal berriki birgaitu eta atondu egin ditu merkataritza-jarduerak eta zerbitzuetakoak garatzeko. Honako hauek dira:

- Víctor Chávarri kaleko 3. zenbakikoa.
- Santa María kaleko 18. zenbakikoa.
- San Roke plazako 7. zenbakikoak

Beraz, hutsik dauden lokal horiek proiektuaren esku gera daitezen, honako baldintza eta onura hauek orokorrean ezartzen dira ekintzaitza-programara lerratzen diren ekintzaileek baliatu ditzaten. Horiek guztiak LOKALA ERRENTAN HARTZEKO KONTRATUAK jasotzen ditu, ondoko klausula hauek dituelarik:

KLAUSULAK

1.- Gabetasuna

Hiru hileko errentako gabealdia ezartzen da, baldin eta jarduera mota bakoitzerako eta/edo negozioa abian jartzeko behar diren hirigintza-eskakizunetara egokitzeko inbertsio-bolumena 5.000 eurokoa edo gehiagokoa bada. Negozioa abian jartzeko inbertsioztat joko da lokalean egin beharreko edozein obra, instalazio edo egokitzapen, baldin eta obra hori finkoa eta iraunkorra bada eta lokalaren mesedetan geratzen bada kontratuaren indarraldia amaitzean.

2.- Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta urtero luzatu ahal izango da, elkarrekin adostuta, gehienez hiru urtez luzatu ere.

Errentamendu-kontratuaren gehieneko epea igarotakoan, kontratua azkendu egingo da, salbu eta errentariak erosteko aukera-eskubidea lehenago egikaritu badu, kontratuan erabaki bada.

3.- Errenta

Oro har, ezartzen den errentaren zenbatekoa merkatuko errenta zenbatetsia % 30 murriztearen ondoriozkoa izango da, kokatuta dauden eremuko lokalen metro koadro erabilgarri bakoitzeko errentaren batez besteko zenbatekoa kontuan hartuta.

4.- Fidantza

Errentariak bi hileko errentari dagokion zenbatekoa emna beharko dio SURPOSARI, fidantzen gordailuan sar dezan, hiri-errentamenduei buruzko 29/1994 Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.- Kontratuaren lagapena

Errentariak izan behar dituen ezaugarriak eta udalaren ekintzailtza-programan sartuta, berariaz debekatuta dago kontratua lagatzea eta azpierreten ematea.

6.- Kontratuaren ebazpena

Kontratueta, kontratua suntsiarazteko arrazoi espezifiko gisa ezarriko da lokalean jarduerarik ez izatea ondoz ondoko bi hilabete edo txandakako hiru hilabete baino gehiagotan, bi kasuetan urteko zenbaketan, hori justifikatzen duten behar bezala egiaztatutako arrazoiak daudenean izan ezik.

7.- Errentariarentzako kalte-ordaina

Hiri-errentamenduei buruzko 29/1994 Legearen 34. artikuluan aipatzen diren kalte-ordainak SURPOSAREkin udalaren ekintzailtza-programaren esparruan sinatzen diren errentamendu-kontratuetatik kanpo geratzen dira.

8.- Errentariari/ekintzailaren betebeharrak

Aurreko ataletako baldintzak betetzeko eskubidea izateko, eskatzaileek egin nahi duten negozioaren edo jardueraren bideragarritasun-plana aurkeztu beharko diote Udalaren ekintzailtza-taldeari, haiek onar dezaten. Bideragarritasun-plan hori egiteko orduan aipatutako talde horrek laguntza eman ahal izango du.

9.- Lehentasunezko establezimenduak, proposamenen hautaketa:

Lehentasunezko establezimenduak

PIEM egituratzeko egin diren txostenek Portugaleteko merkataritza-guneak aztertu zituzten, okupatutako eta okupatu gabeko lokalak aztertuz eta eremu bakoitzerako estrategia espezifikoak zehaztuz. Proiektu honen esku jarritako hiru lokaletatik, bi historiagunean daude, eta bestea erdigunearen eta auzoen arteko elkargune misto batean, betiere PIEMek ezarritako jarduketa-eremuak kontuan hartuta. Proiektu horrek merkataritza-azpisektoreak eta zerbitzuak ezartzeko estrategiak eta proposamenak ezartzen ditu, eremu bakoitzean egindako azterlanetan oinarrituta. Hori horrela izanik, honako hauek sustatzea aurreikusten du:

- Historiagunean kokatutako lokalek eragindako eremuan, estrategia mistoa, berezitasunaren, zerbitzu espezializatuen eta hurbileko merkataritzaren aldeko apustua egiten duena.
- San Rokeko lokalek eragindako eremuan, hurbileko merkataritza eta zerbitzu espezializatuak, ostalaritzako guneari ekarpen osagarria egiten diotenak barne daudelarik.

Proposamenen hautaketa

Sozietatera zuzenean datozen ekintzaileak edota Ekonomi Sustapen Sailak berak bidalitakoak artatuko ditugu, euren proposamenak aurreikusitako gidalerroetara egokitzen ote diren aztertuz.

Kasuak kasu, helburuetara gehien egokitzen diren proposamenak hautatuko dira, betiere Surposako eta Ekonomi Sustapen Saileko teknikariek ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Berebat, 30 urtera arteko gazteek bultzatutako enpresa-proiektuak lehenetsiko dira. Surposaren merkataritzako etxabeetan jarduera sustatzeko neurriez baliatzeko, aurkeztutako proposamenek PIEMek aurreikusitako helburuetara egokitu behar izango dute.

Proposamenak aurkezteko epea:

Merkataritzako ekipamendu hauexetan negozioak jartzeko proposamenak aurkezteko lehen epea ireki dugu, azaroaren 22tik abenduaren 15era arte, hain zuzen.

Sustatzaileek datuok bederen dituen proiektu bat aurkeztu beharko dute:

- Jardueraren sustatzaileen identifikazio-datu guztiak.
- Lokalean merkataritzako jardueraren edo zerbitzuen deskribapen zehatza.
- Aurreikusitako diseinuaren deskribapena, apaingarriak, komunikazio-estrategia eta abar.
- Egin beharreko inbertsioen deskribapena, halakorik balego.

Lokalen ezaugarriak:

Hiru lokalek merkataritza-fatxada berritua dute. Halaber, iturgintza, argindarra eta komunak dituzte. Víctor Chávarri kalekoan sabaiak, hormak eta zoruak konpondu dira. San Rokekoan (7. lokala) ere atondu egin dira.

- Víctor Chávarri, 3. zenbakia, 22 metro koadro erabilgarri.
- Santa María, 18. zenbakia, 27,2 metro koadro erabilgarri
- San Roke plaza: 7. zenbakia: 64 metro koadro erabilgarri.